

SAGARRA-MANZANA / SAGASTIA-MANZANAL

Sagastietako jardueren egutegi praktikoa (martxo-maiatza).

SAGARDOAREN LURRALDEA - 28/03/2014 • 16:21

Sin comentarios



Udaberria hastear dago. Garai honetan egin beharreko lanak hauek dira:

MARTXOA

LURRA-ONGARRIKETA

Une honetan ongarriketa egin behar da. Hilabete honetan, fosforo, potasio eta mangnesio guztia bota behar da, eta hauekin batera, nitrogenoaren erdia. Aldi berean belarra moztu behar da edo herbizida bat bota arbolan inguruan. Karea bota behar izatekotan, era hidratatuan edo kare hila bezala bota behar da.

ARBOLEN FORMAZIOA

Kimaketarekin jarraitu. Arbola gazteetan, aukeratutako sistemaren arabera, heziketako kimaketa egingo dugu.

Arbola helduetan, fruktifikazio kimaketa bat egingo dugu, airea eta argia bilatuz. Azken landaketak egiteko garaia da. Hilabete hau egokia da pua txertoak egiteko, arbolan izerdia mugitzen hasi ezker.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Begiak mugitzerakoan, sagastiari kobre tratamendu bat emango diogu, ahal diren ontto gehien akatzeko, hau da, monilia, zurina, gorrina, txankroa e.a. Kobrea era ezberdinetan erabili daiteke: oxikloruro, hidroxido, oxido edo Caldo Bordeles eran.

APIRILA-MAIATZA

LURRA-ONGARRIKETA

Lehengo hilabetean egin ez bada, belarra kontrolatu behar da. Maiatza bukaeran, loraldia bukatu baldin bada, botatzeko falta zen nitrogeno erdia zabalduko dugu sagastian.

ARBOLEN FORMAZIOA

Loraldiaren garaia da. Horregatik, arbolak pakean uzten saiatu behar dugu, polinizazio eta kuajatuaren prozesuak ez oztopatzeko.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Maiatza hasieran, harrapagailu bat feromonez prestatzea komenigarria da, sagar harra edo arjoa noiz agertzen den ezagutu ahal izateko. Honela, izurrite honen kontra noiz tratatu behar dugun jakingo dugu. Loraldiaren ondoren adaxka batzuk zorriekin ikusten baditugu tratamendu bat eman beharko dugu, arbola gazteetan behintzat. Tratamendu fungizida batzuk egitea komenigarria da, zorria eta harraren kontrako tratamendu intsektizidak aprobetxatuz. Horrela hostoak osasuntsuago egongo dira eta fruituen tamaina hobeagoa izango da.

Egilea: Aitor Etxeandia (Sagarlan)

Iturria: Sagardoaren Lurraldea Boletina 34

Tags: apirila, maiatza, martxo, primavera, Sagarra, Sagastia, sagastiko lanak, trabajos del manzanal, udaberria

Anterior post

Boletín Sagardoaren Lurraldea nº 34. Sagardoaren Lurraldea Boletina 34 zkia.

Siguiente post

Maestro de bodega de sidrería. Sagardotegiko upeltegiko maisua.

Tu comentario / Zure komentarioa

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed

Twitter

Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferias

Ekitaldiak-Eventos

Errezetak-Recetas

Esperientziak-Experiencias

Formazioa-Formación

Gastronomia-Gastronomía

Historia-Historia

Kultura-Cultura

Lehiaketak-Concursos

Museos-Museoak

Prensa-Prensa

Sagarra-Manzana

Sagastia-Manzanal

Sidra-Sagardoa

Sidrerias-Sagardotegiak

Turismo-Turismo

Post Recientes



Sagardotegiko upeltegiko maisua.



Sagastietako jardueren egutegi praktikoa (martxo-maiatza).



Sagardoaren Lurraldea Boletina 34 zkia.



Aste Santua 2014: Sagardoa eta Euskal Herriko gazten dastaketa.

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Sagardoak baditu
"enbajadore" berriak.

Comentarios recientes

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Sagardoaren Lurraldea en XIV. **Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

agandamin en XIV. **Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

Aritz en Donostiako XXVIII. **Sagardo Eguna, irailaren 7an.**